



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

**2019KO URTARRILAREN 24an EGINDAKO
OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

Olaberrian, 2019ko urtarrilaren 24an, arratsaldeko 18:10 izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira Alkatea den Jokin Garmendia Asurabarrena (O.E.O), Nerea Castaño Irazola (O.E.O), Elixabet Canales Segurola (O.E.O.), Maider Agirre Mugika (O.E.O) eta Mikel Etxarri Juanes (O.E.O), .

Aritz Arantzegi Areitio (O.H.E.) eta Iñigo Sarasola Aranzasti (EH-BILDU) zinegotziek bertaratze eza zuritu dute.

Bertan dago eta fede ematen du Idoia Arévalo Benito Idazkari Kontu-hartzaileak.

Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.

**AURREKO BILKURETAKO AKTEN
ONARPENA, HALA BADAGOKIO.**

- 2018ko azaroaren 22ko Ohiko Batzarrari dagokion akta.
- 2018ko abenduaren 20ko Ez-Ohiko Batzarrari dagokion akta.

**ACTA DEL PLENO ORDINARIO
CELEBRADO EL 24 DE ENERO DE 2019.**

En Olaberria, a 24 de enero de 2019, siendo las 18:10 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde, Jokin Garmendia Asurabarrena (O.E.O) y los concejales, Nerea Castaño Irazola (O.E.O), Elixabet Canales Segurola (O.E.O.), Maider Agirre Mugika (O.E.O) y Mikel Etxarri Juanes (O.E.O) .

Los concejales Aritz Arantzegi Areitio (O.H.E.) e Iñigo Sarasola Aranzasti (EH-BILDU) (O.E.O) han excusado su asistencia.

Asiste y da fe del acto la Secretaria-Interventora Idoia Arévalo Benito.

Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, la Corporación pasa a estudiar el primer asunto del orden del día.

**APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS
ACTAS DE LAS SESIONES
ANTERIORES.**

- Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria del 22 de noviembre de 2018.
- Acta correspondiente a la Sesión Extra-Ordinaria del 20 de diciembre de 2018.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Akta bozkatzen da, bertaratutakoek aho-batez onartzen dutelarik.

Se procede a la votación, aprobándose la misma por unanimidad de los presentes.

ALKATETZAKO GAIAK

Alkatetza ebazpenen berri ematea.

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 180 /2018tik 209/2018 bitartera.

Udal-kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

TEMAS DE ALCALDÍA

Dar cuenta de los decretos de alcaldía.

El señor alcalde informa de que se dio cuenta en las pasadas comisiones informativas de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 180/2018 al 209/2018.

Los corporativos quedan al corriente.

OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU TEKNIKOAK

3.000 eurotik gorako fakturen onarpena.

Hauek dira joan zen batzorde informatzailean udal-kideei 2019/01/14 -rarteko aurkeztutako fakturak:

HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS MUNICIPALES

Aprobación de las facturas superiores a 3.000 euros.

Estas son las facturas presentadas a los corporativos en la pasada comisión informativa, a fecha 14/01/2019:



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

IZENA	CIF	AZALPENA	KOPURUA
SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	B31544075	FRA. 2018000199	33.670,60 €
LIMPIEZAS ABANDO, S.L.	B48848634	FRA. 1812825	4.871,93 €
MAIKOLUX, S.L.	B20504221	FRA. 128/18	9.607,09 €
GOIEKI		2019KO EKARPENA	9.607,09 €
IZFE	A20456976	FRA. 2018/1727	5.655,30 €
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	A20471462	FRA. 980001452	45.639,50 €
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	A20471462	FRA.980001453	12.481,41 €
LIMPIEZAS ABANDO, S.L.	B48848634	FRA. 1815016	4.871,93 €
TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK	B20719456	FRA. 00005	6.598,57 €

Gaia bozkatzen da, bertaratutakoek aho-batez onartzen dituztelarik aurkeztutako fakturak.

Se procede a la votación, siendo aprobadas las facturas por unanimidad de los presentes.

Diruzaintzaren egoera: informazioa.

Situación de tesorería: información.

Udal-kideei, 2019ko urtarrilaren 14ari dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaizen joan zen batzorde informatzailean.

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 14 de enero de 2019.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira Udal eraikinen garbiketa kontratuaren esleipena. **3.276.944,46 euro** ditu.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de **3.276.944,46 euros**.

Udal-kideak jakinaren ganean gelditzen dira.

Los corporativos quedan al corriente.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

LANGILERIA

Pertsonalaren 2018ko soldata igoera: 2018. ekitaldiko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen 18.2 artikulua aplikazioa, superabitarekin lotua dagoen igoerari dagokionez.

Gaia udal-kideei azaldu zitzaizen joan zen batzorde informatzailean.

2018-07-04an Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean; arau horrek aukera ematen du neurriak hartu, eta gure administrazio publikoko langileen ordainsaria igotzeko.

Zehazki, aipatu legearen 18 Bi. Artikulua laugarren paragrafoan, honako hau xedatzen da:

“Gainera, soldata-masaren %0,2ko igoera gehigarria baimendu ahal izango da, besteak beste, produktibitatea edo efizientzia hobetzeko planak edo proiektuak abiarazteko, funtzio berdintsuak dituzten lanpostuen arteko berriazko osagarriak berraztertze, lanpostu-mailako osagarriak homologatzeko edo pentsio-planei ekarpena egiteko. Administrazioetan eta artikulua honetan definitutakoaren arabera 2017ko ekitaldian aurrekontuko superabita duten sektore publikoko gainerako erakundeetan, igoera gehigarri hori %0,3koa izan daiteke.”

Udal idazkari-kontuhartzaileak igorritako 2017. urteko aurrekontuaren likidazio txostenaren arabera, 2017an 194.487,21 euroko superabita eduki zuen udalak.

PERSONAL

Incremento retributivo del personal 2018: aplicación del artículo 18.2 de la Ley de Presupuestos Generales del Estado 2018, en lo referente al incremento ligado al superávit.

Se expuso el tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Con fecha 4/07/2018 se publicó en el Boletín Oficial del Estado la Ley 6/2018 de 3 de julio de Presupuestos Generales del Estado de 2018, norma que posibilita la adopción de medidas para el incremento retributivo de nuestros empleados públicos.

En concreto, En concreto, el art. 18.Dos de la referida Ley, en relación con el párrafo cuarto, dispone lo siguiente:

“ Además, se podrá autorizar un incremento adicional del 0,2 por ciento de la masa salarial para, entre otras medidas, la implantación de planes o proyectos de mejora de la productividad o la eficiencia, la revisión de complementos específicos entre puestos con funciones equiparables, la homologación de complementos de destino o la aportación a planes de pensiones. En las Administraciones y resto de entidades del sector público definido en este artículo en situación de superávit presupuestario en el ejercicio 2017, este incremento adicional podrá alcanzar el 0,3 por ciento”

En base al informe de la liquidación del presupuesto de 2017 emitido por la secretaria-interventora municipal, hubo un superávit en 2017 de 194.487,21 euros.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

EUDEL-ek EHAeko udalerrri guztiei zirkular bat bidali zien zeinean, Udal autonomiari kalterik egin gabe, honen inplementazioa gomendatzen zuen, 2018ko urtarrilaren 1eko atzera eraginkortasunarekin.

Gaia behar den bezala aztertu ondoren, honako hau erabakitzen da bertaratutakoen aho-batez:

BAKARRA: Olaberriko Udaletxeko langileei ehuneko 0,3ko soldata igoera aplikatzea, 2018ko urtarrilaren 1eko atzera eraginkortasunarekin.

Galdera eta erreguak

Ez dira egiten

Eta aztertzeke beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura 18:15-ak direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten du

ALKATEA / EL ALCALDE

Sin perjuicio de la autonomía municipal, EUDEL envió una circular a los ayuntamientos de la CAPV recomendando su implementación, con efectos retroactivos desde el 1 de enero de 2018.

Una vez estudiado suficientemente el tema, se acuerda por unanimidad de los presentes lo siguiente:

ÚNICO: Aplicar un incremento salarial al personal trabajador del Ayuntamiento de Olaberria del 0,3 por ciento, con efectos retroactivos desde el 1 de enero de 2018.

Ruegos y preguntas

No se formulan

Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las 18 horas y 15 minutos, y yo, Secretaria de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.

IDAZKARIA / LA SECRETARIA